

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

415/2018 Foru Agindua, abuztuaren 21ekoa, gasolio hobariatuaren azken kontsumitzaileak aurkeztu beharreko aitorten ereduak onartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 33. artikuluan ezartzen du zerga bereziak itundutako tributuak direla, eta estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberak aplikatuta erregulatuko direla.

Era berean, ezartzen du ezen lurralde historikoetako erakunde eskudunek eskumena izango dutela aitorten eta ordainketa ereduak onartzeko eta likidazio-aldi bakoitzaren ordainketa epeak ezartzeko. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ezin dira izan Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

Zerga Berezien Erregelamenduak, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartu eta Gipuzkoan berezko erregulaziorik ez izatean ordezkio moduan aplikatzen denak, 106.4 artikuluan xedatzen du ezen gasolio hobariatuaren azken kontsumitzaileek izaera hori frogatu behar diotela hornitzaileari hornidura bakoitzerako edo hornidura multzo bakoitzerako, eta, horretarako, aitorten bat izenpetu eta aurkeztu beharko dute, onartzen diren ereduak jarraituz.

Otsailaren 16ko 113/2009 Foru Aginduaren bidez, zerga berezien eredu jakin batzuk onartu ziren, eta zerga horien kudeaketan bete beharreko zenbait arau bateratu eta eguneratu ere bai.

Hortaz, agindu honen xedea da esandako foru aginduari 17. artikulua gehitzea, haren bitartez Zerga Berezien Erregelamenduko 106.4 artikuluan aipatzen diren ereduak onartzeko.

Horrenbestez hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Zerga berezien eredu jakin batzuk onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko zenbait arau bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzea.

Zerga berezien eredu jakin batzuk onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko zenbait arau bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Aginduari beste artikulua bat gehitzen zaio, 17.a, honela dioena:

«17. artikulua. Azken kontsumitzailearen aitorten ereduak.

Zerga Berezien Erregelamenduak, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 106.4 artikuluan ezarritako moduan, hidrokarburoen gaineko zergaren esparruan bi aitorten eredu onartzen dira, azken kontsumitzailearenak, zehazki, «azken kontsumitzailearen aitortena -ZBEko 106.4 artikulua-, hornidura bakarra», eta «Azken kontsumitzailearen aitortena -ZBEko 106.4 artikulua-, hainbat hornidura» izenekoak, foru agindu honetan XLI eta XLII eranskin gisa jasotzen direnak hurrenez hurren.»

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 2018/415, de 21 agosto, por la que se aprueban los modelos de declaración del consumidor final de gasóleo bonificado.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece en su 33 que los Impuestos Especiales tienen el carácter de tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado.

Así mismo, establece que las instituciones competentes de los territorios históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso, que contendrán al menos los mismos datos que los de territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

El Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, aplicable de forma supletoria en el Territorio Histórico de Gipuzkoa en ausencia de regulación propia, establece en el apartado 4 de su artículo 106 que los consumidores finales de gasóleo bonificado acreditarán, para cada suministro o para varios suministros, su condición ante el proveedor mediante la aportación de una declaración suscrita al efecto que deberá ajustarse a los modelos que se aprueben.

La Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, aprueba determinados modelos y refunden y actualiza diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales.

Se trata pues de incluir en dicha orden foral, como un artículo 17 nuevo, la aprobación de los modelos a los que hace referencia el apartado 4 del artículo 106 del Reglamento de Impuestos Especiales.

Con tal motivo

DISPONGO

Artículo único. Modificación de la Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, por la que se aprueban determinados modelos y se refunden y actualizan diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales.

Se adiciona un artículo 17 a la Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, por la que se aprueban determinados modelos y se refunden y actualizan diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales, con el siguiente contenido:

«Artículo 17. Modelo declaración de consumidor final.

Se aprueban dos modelos de declaración de consumidor final, en el ámbito del Impuesto sobre Hidrocarburos, «Declaración de consumidor final artículo 106.4 RIE suministro único» y «Declaración de consumidor final artículo 106.4 RIE varios suministros» en los términos previstos en el artículo 106, apartado 4, del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, que figuran como anexos XLI y XLII, respectivamente, a la presente orden foral.»

Eredu horiek I. eta II. eranskin gisa ageri dira foru agindu honetan.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2018ko irailaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

Donostia, 2018ko abuztuaren 21a.—Departamentuko foru diputatua e.d. Imanol Lasa Zeberio, (R-122/2018 Foru Dekretua). (5848)

Dichos anexos figuran como anexo I y II de la presente orden foral.

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y surtirá efectos a partir del 21 de septiembre de 2018.

San Sebastián, a 21 de agosto de 2018.—El diputado foral del Departamento p.a. (Decreto Foral R-122/2018), Imanol Lasa Zeberio. (5848)

I. ERANSKINA / ANEXO I

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas

AZKEN KONTSUMITZAILEAREN AITORPENA HORNIDURA BAKARRA
DECLARACIÓN DE CONSUMIDOR FINAL SUMINISTRO ÚNICO

Identifikazio-datuak / Datos identificativos

Interesduna / Persona interesada

Dokumentu mota / Clase de documento

Dokumentu izaera / Tipo de documento

Zerga / Impuesto

Atal hartzailea / Sección destinataria

Erregistroa - Aplikazioa kodea / -Registro - Cod. Aplicación

Harremanetarako langileak / Persona de contacto

Gasolioaren erabilera edo helburua / Uso o destino del gasóleo

Kontsumoaren xedea / Finalidad consumo

Instalazio mota / Tipo de instalación

Kokalekua / Localización

Aitorpenaren data / Fecha de la declaración

Horniduraren identifikazioa / Identificación del suministro

Hornidura data / Fecha del suministro

Entrega tokia / Lugar de entrega

Azken kontsumitzailearen aitorpena / Declaración de consumidor final

Zerga Beretzien Erregelamenduak 106.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, adierazten dut aitorpen honetan adierazitako kontsumo instalazioan gasolio hobarituaren azken kontsumitzaile naizela eta aipatutako xederako erabiltzen dudala. Aitorpen honek balio izango du identifikatutako hornidurarako.

A los efectos establecidos en el artículo 106.4 del Reglamento de Impuestos Especiales, declaro ser consumidor final de gasóleo bonificado en la instalación de consumo y para la finalidad de consumo indicadas en la presente declaración. La presente declaración será efectiva para el suministro identificado.

Sinatzaila / Firmante

Izena / Nombre

Sinatzailaren identifikazio agiri zenbakia / Número de documento de identificación del firmante

Honako hau den aldetik / En calidad de

Data eta sinadura / Fecha y firma

Los datos de este impreso se incorporarán a los ficheros informáticos de la Hacienda Foral para fines tributarios. Podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en los términos de la Ley Orgánica 15/1999, ante la misma: P^º Errotaburu n^º 2, 2018-San Sebastián, o a través de la sede electrónica: www.gfaegoitza.eus

Inprimaki honetan jartzen dituzun datuak zerga-helburuetarako fitxategi informatikoetan gordeko ditugu. Datu horiekiko sarrera, zuzenketa, deuseztatze eta oposizio eskubideak erabil ditzakezu, 15/1999 Lege Organikoaren baldintzetan, Foru Ogasunaren aurrean: Errotaburu Pasealekua 2, 2018-Donostia, edo egotza elektronikoaren bitartez: www.gfaegoitza.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas

AZKEN KONTSUMITZAILEAREN AITORPENA HORNIDURA BAKARRA
DECLARACIÓN DE CONSUMIDOR FINAL SUMINISTRO ÚNICO

Identifikazio-datuak / Datos identificativos

Interesduna / Persona interesada

Dokumentu mota / Clase de documento

Dokumentu izaera / Tipo de documento

Zerga / Impuesto

Atal hartzailea / Sección destinataria

Erregistroa - Aplikazioa kodea / -Registro - Cod. Aplicación

Harremanetarako langileak / Persona de contacto

Gasolioaren erabilera edo helburua / Uso o destino del gasóleo

Kontsumoaren xedea / Finalidad consumo

Instalazio mota / Tipo de instalación

Kokalekua / Localización

Aitorpenaren data / Fecha de la declaración

Horniduraren identifikazioa / Identificación del suministro

Hornidura data / Fecha del suministro

Entrega tokia / Lugar de entrega

Azken kontsumitzailearen aitorpena / Declaración de consumidor final

Zerga Berezien Erregelamenduak 106.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, adierazten dut aitorpen honetan adierazitako kontsumo instalazioan gasolio hobarituaren azken kontsumitzaile naizela eta aipatutako xederako erabiltzen dudala. Aitorpen honek balio izango du identifikatutako hornidurarako.

A los efectos establecidos en el artículo 106.4 del Reglamento de Impuestos Especiales, declaro ser consumidor final de gasóleo bonificado en la instalación de consumo y para la finalidad de consumo indicadas en la presente declaración. La presente declaración será efectiva para el suministro identificado.

Sinatzailea / Firmante

Izena / Nombre

Sinatzailearen identifikazio agiri zenbakia / Número de documento de identificación del firmante

Honako hau den aldetik / En calidad de

Data eta sinadura / Fecha y firma

Interesdunaren alea / Ejemplar para la Persona Interesada

Los datos de este impreso se incorporarán a los ficheros informáticos de la Hacienda Foral para fines tributarios. Podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en los términos de la Ley Orgánica 15/1999, ante la misma: P^a Errotaburu nº 2, 2018-San Sebastián, o a través de la sede electrónica: www.giaegoitza.eus

Inprimaki honetan jartzen dituzun datuak zerga-helburuetarako fitxategi informatikoetan gordeko ditugu. Datu horiekiko sarrera, zuzenketa, deuseztatze eta oposizio eskubideak erabil ditzakezu, 15/1999 Lege Organikoaren baldintzetan, Foru Ogasunaren aurrean: Errotaburu Pasealekua 2, 2018-Donostia, edo egoitza elektronikoaren bitartez: www.giaegoitza.eus

II. ERANSKINA / ANEXO II



**AZKEN KONTSUMITZAILEAREN AITORPENA HAINBAT HORNIDURA
DECLARACIÓN DE CONSUMIDOR FINAL VARIOS SUMINISTROS**

Identifikazio-datuak / Datos identificativos

Interesduna / Persona interesada

Dokumentu mota / Clase de documento

Dokumentu izaera / Tipo de documento

Zerga / Impuesto

Atal hartzailea / Sección destinataria

Erregistroa - Aplikazioa kodea / -Registro - Cod. Aplicación

Harremanetarako langileak / Persona de contacto

Gasolioaren erabilera edo helburua / Uso o destino del gasóleo

Kontsumoaren xedea / Finalidad consumo

Instalazio mota / Tipo de instalación

Kokalekua / Localización

Balio epealdia / Período de validez

Aitorpenaren data / Fecha de la declaración

Indarraldiaren amaierako data / Fecha límite de vigencia

Azken kontsumitzailearen aitorpena / Declaración de consumidor final

Zerga Berezien Erregelamenduetan 106.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, adierazten dut aitorpen honetan adierazitako instalazioan egindako horniduretarako gasolio hobarituaren azken kontsumitzaile naizela eta aipatutako xederako erabiltzen dudala. Aitorpen honek balio izango du lehen aipatutako balio epealdian jasotako horniduretarako.

A los efectos establecidos en el artículo 106.4 del Reglamento de Impuestos Especiales, declaro ser consumidor final de gasóleo para los suministros realizados en la instalación y para la finalidad de consumo indicado en la presente declaración. La presente declaración será efectiva para los suministros recibidos en el período de validez arriba mencionado.

Sinatzailea / Firmante

Izena / Nombre

Sinatzailearen identifikazio agiri zenbakia / Número de documento de identificación del firmante

Honako hau den aldetik / En calidad de

Data eta sinadura / Fecha y firma

Administrazioaren alea / Ejemplar para la Administración

Los datos de este impreso se incorporarán a los ficheros informáticos de la Hacienda Foral para fines tributarios. Podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en los términos de la Ley Orgánica 15/1999, ante la misma: P^º Errotaburu n^º 2, 2018-San Sebastián, o a través de la sede electrónica: www.gfaegoitza.eus

Inprimaki honetan jartzun dituzun datuak zerga-helburuetarako fitxategi informatikoetan gordeko ditugu. Datu horiekiko sarrera, zuzenketa, deuseztatze eta oposizio eskubideak erabili ditzakezu. 15/1999 Lege Organikoaren baldintzetan, Foru Ogasunaren aurrean: Errotaburu Pasealekua 2, 2018-Donostia, edo egoitza elektronikoaren bitartez: www.gfaegoitza.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Hacienda y Finanzas

AZKEN KONTSUMITZAILEAREN AITORPENA HAINBAT HORNIDURA DECLARACIÓN DE CONSUMIDOR FINAL VARIOS SUMINISTROS

Identifikazio-datuak / Datos identificativos

Interesduna / Persona interesada

Dokumentu mota / Clase de documento

Dokumentu izaera / Tipo de documento

Zerga / Impuesto

Atal hartzailea / Sección destinataria

Erregistroa - Aplikazioa kodea / -Registro - Cod. Aplicación

Harremanetarako langileak / Persona de contacto

Gasolioaren erabilera edo helburua / Uso o destino del gasóleo

Kontsumoaren xedea / Finalidad consumo

Instalazio mota / Tipo de instalación

Kokalekua / Localización

Balio epealdia / Período de validez

Aitorpenaren data / Fecha de la declaración

Indarraldiaren amaierako data / Fecha límite de vigencia

Azken kontsumitzailearen aitorpena / Declaración de consumidor final

Zerga Berezien Erregelamenduak 106.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, adierazten dut aitorpen honetan adierazitako instalazioan egindako horniduretarako gasolio hobarituaren azken kontsumitzaile naizela eta aipatutako xederako erabiltzen dudala. Aitorpen honek balio izango du lehen aipatutako balio epealdian jasotako horniduretarako.

A los efectos establecidos en el artículo 106.4 del Reglamento de Impuestos Especiales, declaro ser consumidor final de gasóleo para los suministros realizados en la instalación y para la finalidad de consumo indicado en la presente declaración. La presente declaración será efectiva para los suministros recibidos en el período de validez arriba mencionado.

Sinatzailea / Firmante

Izena / Nombre

Sinatzailearen identifikazio agiri zenbakia / Número de documento de identificación del firmante

Honako hau den aldetik / En calidad de

Data eta sinadura / Fecha y firma

Interesdunaren alea / Ejemplar para la Persona Interesada

Los datos de este impreso se incorporarán a los ficheros informáticos de la Hacienda Foral para fines tributarios. Podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en los términos de la Ley Orgánica 15/1999, ante la misma: P^a Errotaburu nº 2, 2018-San Sebastián, o a través de la sede electrónica: www.gfaegoitza.eus

Inprimaki honetan jartzen dituzun datuak zerga-helburuetarako fitxategi informatikoetan gordeko ditugu. Datu horiekiko sarrera, zuzenketa, deuseztatze eta oposizio eskubideak erabil ditzakezu, 15/1999 Lege Organikoaren baldintzetan, Foru Ogasunaren aurrean: Errotaburu Pasealekua 2, 2018-Donostia, edo egoitza elektronikoaren bitartez: www.gfaegoitza.eus



Azken kontsumitzailearen aitortpena betetzeko jarraibideak (Zerga Berezien Erregelamenduko 106.4 artikulua)

Hidrokarburoen gaineko zerga

(1) Aitortzailearen identifikazioa

Aitortzailearen identifikazio datuak bete (IFZ, AIZ, izen-abizenak)

(2) Gasolioaren erabilera edo helburua

Kontsumoaren xedea

Kontsumoaren xedea "erregaia" bada, hauetako bat jarriko da:

- Etxekoa edo egoitzakoa
- Profesionala

Kontsumoaren xedea "karburatzailea" bada, hauetako bat jarriko da:

- Traktoreen eta nekazaritzako makineriaren propulzio motorrak
- Traktoreenak eta nekazaritzako makineriarenak ez diren beste propulzio motor batzuk
- Propulzioan erabiltzen ez diren motorrak (motor finkoak)

Beste datu batzuk:

Kontsumoaren xedea etxeko edo egoitzako erregaiarena edo erregai profesionalarena bada, datu hauek bete behar dira:

- Instalazio mota (deskribapena): berokuntzako galdara...
- Kokalekua (helbidea: kalea, zenbakia, udalerria)

Kontsumoaren xedea traktoreen eta nekazaritzako makineriaren erregaiarena bada, datu hauek jarri behar dira:

- Instalazio mota (deskribapena): traktorea / nekazaritzako makineria

Kontsumoaren xedea beste propulzio motor batzuen erregaiarena bada, datu hauek jarri behar dira:

- Instalazio mota (deskribapena): tresna, aparatu edo urontzi mota

Kontsumoaren xedea motor finkoen erregaiarena bada, datu hauek jarri behar dira:

- Instalazio mota (deskribapena): motor mota, eta erabilera edo helburua

(3) Balio epea, hainbat hornidura direnean

Aitorpenaren sinadura data (urtea/hila/eguna)

Aitorpenaren indarraldiaren amaierako data (urtea/hila/eguna)

(4) Horniduraren identifikazioa, hornidura bakarra denean

Horniduraren data (urtea/hila/eguna)

Entrega tokia: (kalea, tokia, posta kodea, udalerria eta probintzia)

Sinatzailea

Izena: azken kontsumitzailearen aitortpena sinatzen duenaren izen-abizenak jarriko dira.

Sinatzailearen identifikazio agiriaren zenbakia: sinatzaileak NAN edo AIZ espainiarra badu, IFZren zenbakia jarriko da, edo, haren ezean, bera identifikatzeko balio duen beste edozein agiriarena.

Honako hau den aldetik: sinatzailea eta aitortzailea ez badatoz bat, adieraziko da sinatzaileak zer harreman duen azken kontsumitzailea den aitortzailearekin.



Instrucciones para cumplimentar la declaración de consumidor final artículo 106.4 Reglamento de los Impuestos Especiales

Impuesto sobre Hidrocarburos

(1) Identificación declarante

Cumplimentar los datos de identificación del declarante (NIF, NIE, nombre y apellidos)

(2) Uso o destino del gasóleo

Finalidad del consumo:

Si la finalidad del consumo es "Combustible", se consignará según el caso:

- Doméstico o residencial
- Profesional

Si la finalidad del consumo es "Carburante" se consignará según el caso:

- Motores de propulsión de tractores y maquinaria agrícola
- Otros motores de propulsión distinto de tractores y maquinaria agrícola
- Motores no utilizados en la propulsión (motores estacionarios)

Otros datos:

Si la finalidad de consumo es como combustible doméstico o residencial, o profesional, deberán rellenarse los siguientes datos:

- Tipo de instalación (descripción): caldera calefacción.
- Localización (dirección: calle, número y ciudad)

Si la finalidad del consumo es como carburante de tractores y maquinaria agrícolas, deberán rellenarse los siguientes datos:

- Tipo de instalación (descripción): Tractor/maquinaria agrícola.

Si la finalidad del consumo es como carburante de otros motores de propulsión, deberán rellenarse los siguientes datos:

- Tipo de instalación (descripción): Tipo de artefacto, aparato o buque

Si la finalidad del consumo es como carburante en motores estacionarios, deberán rellenarse los siguientes datos:

- Tipo de Instalación (descripción): Tipo de motor uso o destino

((3) Periodo de Validez para varios suministros

Fecha (día/mes/año) de firma de la declaración.

Fecha límite de vigencia de la declaración: (día/mes/año)

(4) Identificación del suministro Para suministros únicos.

Fecha de suministro: (día/mes/año)

Lugar de entrega: (Calle, lugar, código postal, localidad y provincia)

Firmante

Nombre: Se consignará el nombre y apellidos de la persona que firma la declaración de consumidor final

Número de documento de identificación del firmante: Si el firmante dispone de DNI o NIE español, se consignará el número del NIF, o su defecto cualquier otro documento que permita la identificación del mismo

En calidad de: En el supuesto de que el firmante no coincida con el declarante, se indicará la relación del firmante con el declarante consumidor final